

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Batzar Nagusiak****Bizkaiko Batzar Nagusiak****Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2019. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 8/2018 FORU ARAUA.**

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2018ko abenduaren 27ko Osoko Bilkuran onartu dutela Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2019. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 8/2018 Foru Araua, eta berau aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

Bilbon, 2018ko abenduaren 28an.

Ahaldun Nagusia
UNAI REMENTERIA MAIZ



**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2019. URTEKO
AURREKONTU OROKORREI BURUZKO
ABENDUAREN 27KO 8/2018 FORU-ARAU
AURKIBIDEA**

Hitzaurrea.

I. titulua. — Onespén eta edukiari buruzkoa.

I. kapitulua. — *Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren Eremua.*

1. artikulua. — Osaketa eta zenbatekoa.
2. artikulua. — Foru erakundeen aurrekontuei buruzkoa.

II. kapitulua. — *Kredituen araubide orokorra.*

3. artikulua. — Kredituen izaera eta lotura.

II. titulua. — Aurrekontuen aldarazpenei buruzkoa.

I. kapitulua. — *Sektore Publiko Administrazioaren Aurrekontuak Aldarazteko Arauak.*

4. artikulua. — Kreditu zabalgarriak.
5. artikulua. — Kreditu eransketak.
6. artikulua. — Kreditu transferentziak.

II. kapitulua. — *Kudeaketa eta Aldarazpenerako Arauak Enpresa-Sektore Publikoan.*

7. artikulua. — Ibilgetua eskualdatzea.

III. titulua. — Aurrekontuen kudeaketari buruzkoa.

8. artikulua. — Aurrekontua indarrean jarri eta ondorengo kontabilitate eragiketak.
9. artikulua. — I. kapituluko kredituen kudeaketa. Langileen ordainsariak.
10. artikulua. — Sailen diru sarrerren kudeaketari buruzkoa.
11. artikulua. — Finantza-kidetzapeko gastuen doiketak.
12. artikulua. — Foruzko herri arloaren barruko transferentziak.

IV. titulua. — Foru Arlo Publikoko Langileen Kudeaketari Buruzkoa.

I. kapitulua. — *Sektore Publiko Administrazioen Plantilla.*

13. artikulua. — Plantillaren osaketa.
14. artikulua. — Plazen sorkuntza, aldarazpen eta amortizazioa.
15. artikulua. — I. kapituluko gastu igoeraren mugapena.
16. artikulua. — Kreditu soberakinak.
17. artikulua. — Enplegu publikoaren eskaintza.
18. artikulua. — Lanpostuen zerrenda.
19. artikulua. — Lanpostuen hornidura.

II. kapitulua. — *Sektore Publiko Administrazioetako Plantillari eta Lanpostuen Hornidurari Dagozkien Aldarazpenetan Bete Beharreko Prozedura.*

20. artikulua. — Langile berrien altak.
21. artikulua. — Langileen bajak.
22. artikulua. — Langileen aldarazpenak.
23. artikulua. — Foru erakunde autonomiadunei aplikatu beharrekoak.

III. kapitulua. — *Sektore Publiko Administrazioetako Langileen Ordainsari Araubidea.*

24. artikulua. — Langileen ordainsariak.
25. artikulua. — Foru erakunde autonomiadunei aplikatu beharrekoak.

**IV. kapitulua. — Enpresa-Sektore Publikoetako Langileen Kudeaketa.**

- 26. artikulua. — Langileen kudeaketa Foru enpresa-erakunde publikoetan.
- 27. artikulua. — Langileen ordainsarien gehikuntza.
- 28. artikulua. — Lanpostuak sortu, aldarazi edota amortizazioa.
- 29. artikulua. — Langileen kontratazioa.

V. titulua. — Finantza Eragiketei Buruzkoa.**I. kapitulua. — Bermeak.**

- 30. artikulua. — Abalen mugak eta birfidantzamendua.

II. kapitulua. — Zorpeketa.

- 31. artikulua. — Muga.
- 32. artikulua. — Zorpeketa eta finantza eragiketa Merkataritzako foru sozietateetan.

VI. titulua. — Lurralde Historikoko Udalerriei buruzkoa.**I. kapitulua. — Udalen Diru Sarrerei buruzkoa.**

- 33. artikulua. — Toki zergen bilketa.
- 34. artikulua. — Udalerrien partaidetza zerga. Itunduetan.
- 35. artikulua. — Udalerrien partaidetza itundu gabeko zergetan.
- 36. artikulua. — Aurrekontuetatik kanpoko bestelako diru sarrerak.

II. kapitulua. — Udalkutxa-Udal Finantzaketarako Foru Funtzari buruzkoa.

- 37. artikulua. — Zenbatekoa.
- 38. artikulua. — Zerga-ahalegina.
- 39. artikulua. — Aurrekontuetako kredituak, kontura egindako ordainketak.
- 40. artikulua. — Zorren konpentsazioa.
- 41. artikulua. — Toki korporazioek eman beharreko informazioa.
- 42. artikulua. — Foru Aldundiak Toki erakundeei eta Batzar Nagusiei eman beharreko informazioa.

III. kapitulua. — Finantza Babesaren Araubidea.

- 43. artikulua. - Toki erakundeen kreditu eragiketak.
- 44. artikulua. - Toki korporazioek eman beharreko informazioa.

VII. titulua. — Zerga-Arauei buruzkoa.**I. kapitulua. — Zuzeneko Zergak.****Lehenengo atala. — Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.**

- 45. artikulua. — Salbuetsita dauden errentak.
- 46. artikulua. — Baterako zerga-ordainketaren ziozko txikipena.
- 47. artikulua. — Likidazio oinarri orokorraren eskala.
- 48. artikulua. — Kuota murriztea.
- 49. artikulua. — Ondorengoen ziozko kenkaria.
- 50. artikulua. — Aurrekoen ziozko kenkaria.
- 51. artikulua. — Urritasunaren edo menpekotasunaren ziozko kenkaria.
- 52. artikulua. — Adinaren ziozko kenkaria.

II. kapitulua. — Tokiko Zergak.

- 53. artikulua. — Ondasun Higiezinaren gaineko zerga.

III. kapitulua. — Tasak eta Prezio Publikoak.

- 54. artikulua. — Tasak eta herri prezioak.

*Lehen Xedapen Gehigarria.*

Berandutze-interesa.

Bigarren Xedapen Gehigarria.

Pertsonal gastuei buruzkoa.

Hirugarren Xedapen Gehigarria.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Enpresa-Sektore Publikoari dagozkion Erakundeek plan-tillako plazak sortzea, aldaraztea edo/eta amortizatzea.

Laugarren Xedapen Gehigarria.

Udalkutxa 2018ren likidazioa.

Bosgarren Xedapen Gehigarria.

Zerbitzu Aktiboaren Luzapena.

Seigarren Xedapen Gehigarria.

Seed Capital Mikro, Sociedad de Capital Riesgo de Régimen Simplificado, S.A. deritzon merkataritzako sozietatearen epe luzerako zorpetzearen muga.

Zazpigarren Xedapen Gehigarria.

Abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arautzailearen bitartez onetsitako Aurrekontuen Foru Arau Orokorraren testu bategineko 22. artikulua aldatzea.

Zortzigarren Xedapen Gehigarria.

Atxikitako Partzuergoen aurrekontuak.

Azken Xedapena.

Indarrean jartzea.

**HITZAURREA**

Honako foru arau honek, 2019 urterako Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrak jaso eta arautzen ditu.

I. Tituluan aurrekontuen arloa zehazten da. Atal hau ez da iazko ekitaldikoarekiko aldatu.

II. Tituluan Aurrekontuko Aldarazpenak arautzen dira. Aipatu behar da murriztu egin direla kreditu transferentzia batzuk.

III y IV. atalek Foru sektore publikoen aurrekontuak eta langileria kudeatzeko arauak biltzen dituzte.

V. Tituluan, finantzako eragiketak araupetzen dira. Bertan ezarri da Foru Aldundiaren eta beronen erakunde publikoen zorpeketaren muga.

VI. Tituluak udal finantzaketa arautzen du.

VII. titulua zerga-arauei buruzkoa da eta Bizkaiko Foru Aldundiaren tasa, prezio publiko eta ondare-prestazio publikoen zenbateko finkoko tasak eguneratzen ditu.

I. TITULUA**ONESPEN ETA EDUKIARI BURUZKOA****I. KAPITULUA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN AURREKONTU OROKORREN EREMUA****1. artikulua. — Osaketa eta zenbatekoa**

Lurralde Historikoaren aurrekontu orokor eta bateratuak 8.417.771.749,00 eurokoak dira, gastuen zein sarreraren orriari dagokionez, barru izaerako kapitalaren transferentzia eta maileguak eta ekarpenen ziozko doiketak, inbertsio errealak, eta ondasun eta zerbitzuen salerosketa kendu ondoren, 360.472.893,00 eurokoak guztira.

2. artikulua. — Foru erakundeen aurrekontuei buruzkoa

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontua 8.216.709.802,00 eurokoa da, eta diru sarreraren orrian zorpeketako eragiketak sartuko dira, 119.388.000,00 euroko zenbatekoan.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko zergei dagozkien zerga gastuak 3.208.900.000,00 eurokoak izango bide dira.

3. Bizkaiko Foru Aldundiari esleitu zaion aurrekontua hau da:

- Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila, 97.408.398,00 euro.
- Gizarte Ekintza Saila, 558.972.958,00 euro.
- Euskara eta Kultura Saila, 60.456.453,00 euro.
- Ogasun eta Finantza Saila, 125.832.756,00 euro.
- Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Saila, 148.350.256,00 euro.
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila, 120.559.968,00 euro.
- Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila, 301.194.373,00 euro.
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila, 62.405.328,00 euro.
- Herri Zorra, 168.479.809,00 euro.
- Erakundeen Konpromisoak, 5.667.354.973,00 euro.
- Udal Finantzaketa, 896.794.530,00 euro.



4. Foru erakunde autonomiadunaren aurrekontuak:
- Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFE), 122.246.300,00 euro.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontuaren barruan, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen finantzaketarako transferentziak sartzen dira, 121.782.000,00 euro.
5. Foru enpresa-erakunde publikoen administrazio aurrekontua 9.467.359,00 euro izan da guztira; hona xehakapena:
- Bizkaiko Tutoretzako Erakundea, 2.791.359,00 euro.
 - Elane, Bizkaiko Eskuordetza (Estatuko loteriak eta apustuak), 1.451.000,00 euro.
 - BizkaikOA, 5.225.000,00 euro.
6. Merkataritzako foru sozietateen administraziozko aurrekontu bateratuak 413.013.705,00 euroko kopurua erdiesten du, zeinen banaketa honako hau baita:
- Aparkabisa Bizkaiko Garraio Gunea, A.B.k, 5.675.750,00 euro.
 - Azpiegiturak, S.A.U.k, 71.758.526,00 euro.
 - Basalan, S.A.k, 7.233.404,00 euro.
 - Beaz, S.A.k, 5.985.833,00 euro.
 - Interbiak Bizkaiko Hegoaldeko Akzesibilitatea, S.A.k, 187.381.590,00 euro.
 - Euskalduna Jauregia, S.A.k, 10.282.284,00 euro.
 - Garbiker, S.A.k, 41.360.651,00 euro.
 - Lantik, S.A.k, 73.034.333,00 euro.
 - Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, S.A.k, 1.355.000,00 euro.
 - Zugaztel, S.A.k, 6.350.500,00 euro.
 - Seed Capital Mikro, Sociedad de Capital Riesgo de Régimen Simplificado, S.A.k, 726.300,00 euro.
 - Crowdfundig Bizkaia PFP, S.L.U., 200.000,00 euro.
 - Sestao Bai, S.A. 1.669.534,00 euro.
7. Bizkaiko Foru Aldundiaren Fundazioek baterako administrazio-aurrekontua aurkezten dute (aurrekontuaren zenbatekoa: 16.807.476,00). Honela banakaturik dago:
- Bizkaia-Bizkaialde Fundazioaren aurrekontua: 1.600.000,00 euro.
 - Juan Crisóstomo de Arriaga Orkestra Sinfonikoaren aurrekontua: 8.741.042,00 euro.
 - Azkue Fundazioaren aurrekontua: 645.035,00 euro.
 - Biscaytik Fundazioaren aurrekontua: 5.821.399,00 euro.

II. KAPITULUA

KREDITUEN ARAUBIDE OROKORRA

3. artikulua. — *Kredituen izaera eta lotura*

Badago kredituak lotzeko araubide orokorrik, 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsi zen Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren Testu Bateginaren 52. artikuluan araupeturik; horrezaz landa, 2019ko ekitaldirako, kredituak lotaraztekoak izango dira, beraiek onesteko dagoen garapen mailaren arabera, baldin eta euren izaera, garrantzi edo xede bereziagatik, lotura bereziarekin esleiturik badaude, programetako kreditu programa-loturen garapen organikoan.

Eskura dauden baliabideak hobetze aldera, ohiko gastuei dagozkien Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen kredituak kapitulu mailan lotu dira (2. kapitulua).

Administrazio arloko kudeaketa errazte aldera, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren, Euskara eta Kultura Sailaren, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sailaren ondoko



Gastu Proiektu hauek loturik egongo dira programa, kapitulu eta gastu proiektu arloari dagokionez:

- 2007/0295, 2007/0604, 2007/0605, 2007/0629, 2007/0643, 2007/0631 eta 2008/0198.
- 2008/0040, 2008/0041, 2010/0024 eta 2015/0052
- 2007/0109, 2009/0012 eta 2013/0051.
- 2008/0075, 2007/0563, 2013/0048 eta 2007/0518.

Baldin eta gastuaren kreditu bat osorik edo zati baten beste administrazio batek edo batzuk edo pertsona fisiko edo juridiko batek edo batzuk finantzatuta badago, lotura maila azpikontzeptuarena izango da, Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren Testu Bateginaren 52. artikuluan ezarri dena gorabehera.

II. TITULUA

AURREKONTUEN ALDARAZPENEI BURUZKOA

I. KAPITULUA

ALDARAZPEN ARAUAK SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOEN AURREKONTUEI BURUZ

4. artikulua. — *Kreditu zabalgarriak*

Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren Testu Bateginaren 54. artikuluan aipaturiko kredituen kalterik gabe, 2019ko ekitaldian zehar, zabalgarritzat eta, aldez aurretik, lege ezarritako formalitateak betetzen direla, honako hauek ere hartuko dira:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontuko kredituak, hartu behar direnean, beraiei dagokien partidaren gaikuntza egin ondoren, Europako Batasuna, espainiar estatua, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa edota herri izaerako beste edozein izakirekin lortutako elkarren arteko finantzaketako konpromiso formalen arabera, beti ere Lurralde Historikoaren 2019. urteko aurrekontu orokorren barruan sartuta ez daudenean; sartuta badaude, ostera, diru-kopuru txikiagoan izan behar da. Zabalkuntzak, mugatzat, sarreraren orrian ezarritakoa gainditzeko duen erakunde elkar finantzagileak hitzarturiko zenbatekoa izango du.
- b) Foru Administrazioa alderdi auzi-jartzaile edo demandatu gisa agertzen den auzibideratze-mota guztien hasiera, aurkatze nahiz burutzapenaren zioz sortutako gastuetarako, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko eta Ogasun eta Finantza Saileko Lege Aholkularitzaren programaren barruan sarturiko kredituak.
- c) Udalei aurrerakinak emateko diren VIII. Kapituluko kredituak, Sektore publiko administratiboan zerbitzupeko langileari dagozkionak, baldin eta bidezko bada eta aldez aurretik partida egokia gaituz gero.
- d) Sektore publiko administratiboetako langileentzat Laguntza batzak onesten dituen konpromisoei eta jaiotzeengatik laguntzei aurre egiteko diren eta IV. Kapituluan dauden kredituak.
- e) MIGIL-Minusbaliatuak Birgizarteratzeari buruzko Legea ezartzeak eratortzen dituen sorospenei zein elbarritasun eta erretiroaren ziozko doako pentsioei dagokien kredituak.
- f) Gizarte Ongizaterako Funtsaren pentsioei dagozkien kredituak.
- g) Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia eta arreta pertsonala sustatzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aplikazioaren emaitza izango diren prestazio ekonomikoen kredituak.
- h) Ogasun eta Finantza Sailaren aseguru-polizen frankiziak eta «Ondarea eta Arriskuen Prebentzioa» izeneko Programa ordaintzeko diren kredituak, eta bai «Zerga-bilketaren kudeaketa» deritzon Programaren premiamendu-prozeduren kostuak ordaintzeko diren kredituak ere.



- i) 232115 programako («Lankidetza eta dibertsitatearen kudeaketa») garapenerako lankidetzarako laguntzetarako eta irabazteko asmorik gabeko elkarteen laguntzetarako kredituak.
- j) Zuzeneko ordainketetarako (NBBEF-Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsa) eta mahastiak birgaitzeko planetarako laguntzetarako kredituak, ondoko partida hauetan sartzen direnak: 0202/414104/44300/2007-0296, 0205/412103/74300/2007-0296 eta 0205/412103/74900/2007-0296.
Hedaketa, elkar finantzagilea den izakiaren aldetik, legez dagokion zenbatekoa ordaintzeko konpromisoaz jabetzearen baldintza pean dago.
- k) «942129 Udal finantzaketa» programako kredituak, Gizartekutxa Funtseko urteko likidazioa ordaintzeko direnak.
- l) Adinekoentzako egoitza, eguneko zentro edo zerbitzu berdinetzietako egonaldiei, pertsona ezinduei eta gizarte bazterkeriako arriskuan dauden pertsonen, zentroetan soroslaritza behar izan dezaten arazodun emakumeen bideratutako laguntzak finantzatzeko Gizarte Ekintza Sailaren eta Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren aurrekontuko kredituak.

5. artikulua. — Kreditu eransketak

«Udal Finantzaketa» (Udalkutxa) dela eta, 942129 programari dagokion kreditu guztia, aintzatetsitako betekizunei lotu gabea, 2019 ekitaldiko aurrekontuari erantsiko zaio eta ez da Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren Testu Bateginaren 63. artikuluan aurreikusitako mugapenei atxikita egongo.

Udal Finantzaketa Saileko aurrekontuari gehituko zaizkion aurreko ekitaldien zuzkidurak transferitu ahalko dira, finantzatzea aurreikusiko duten jarduketan izaeraren funtzioan.

2018. urteko Diruzaintzaren Gerakina kalkulatzeko aldera, kreditu inkorporagarri horiek ukitzen den finantzaketaren bidezko kredituen izaera izango dute.

6. artikulua. — Kreditu transferentziak

1. Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren Testu Bateginaren 59. 2 eta 3 artikuluan aurreikusitako betekizun eta mugapenek ez dituzte ukituko aurrekontuetan sartu den jarduera edo zerbitzua kudeatzeko era aldatzeagatik kontabilitatean egotz daitezkeen aldaketen emaitzako transferentziak.

2. Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren Testu Bateginaren 59. 2 eta 3 artikuluan ezarri denari lotuta egongo ondoko transferentzia hauek:

- «942129 Udal finantzaketa» programa ukitzen dutenak.
- Bilboko Metroa finantzatzeko Garraioen Partzuergoaren kontura egiten diren diru-laguntza arruntak eta kapital diru-laguntzen artekoak.
- Jatorrian eta destinoan foru dekretu bidez araupetutako 232115 programako diru-laguntzei (garapenerako lankidetza, sentsibilizazio edota hezkuntza proiektuak, interkulturaltasunerako lankidetza, sentsibilizazioa edota hezkuntza proiektuak eta herritarren eskubideak xede dituztenak) eragiten dietenak.
- Udal azpiegiturak finantzatzeko diren 0709/922114 Programako diru-laguntzen jatorriari eta xedeari eragiten dietenak.
- Jatorriz eta destinoz Gizarte Ekintza Saileko 231106 programaren barruko 23708 eta 46100 azpikontzeptu ekonomikoetako kredituei lotuta daudenak.
- 2010/0024 «Bizkaia frontoia» proiektuko partidak ukitzen dituztenak, Euskara eta Kultura Saileko 341109 «Kirol federatua» programaren barruan.

3. Honen aurreko idatz-zatiaren aplikazioan tramitatuko diren transferentziak, aurrez bidezko tramiteak bete ondoren, egokia den eta hori baimentzeko eskumenak izango dituen saila/erakundearen titularrak agindua emanda burutuko dira.

4. Sorospen edo pentsioetarako diren kredituetarako kredituen transferentziak izaera horretarako prestazioei aurre egiteko erabili beharko dira.



5. Kredituen transferentzien izapidetzeak jatorrizko eta helburuzko kredituei buruzko nahikoa dokumentazio izan beharko du, baita horren eragin ekonomikoari buruzkoa ere; ekonomia efizientziaren arrazoiak direla medio, kredituak onestea mugatu ahalko da.

II. KAPITULUA

KUDEAKETA ETA ALDARAZPENERAKO ARAUAK ENPRESA-SEKTORE PUBLIKOETAN

7. artikulua. — *Ibilgetua eskualdatzea*

Ibilgetuaren eskualdaketa aurrekontuan ageri ez badira, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak baimendu behar ditu. Hala ere, aleko balioa 30.000,00 eurotik beherakoa duten ondasun higikorren eskualdaketatik ez da hori bete behar.

III. TITULUA

AURREKONTUEN KUDEAKETARI BURUZKOA

8. artikulua. — *Aurrekontua indarrean jarri eta ondorengo kontabilitate eragiketak*

1. Aurrekontua indarrean jarri ondoren, honako hauek kontabilizatuko dira:
 - a) 2018ko ekitaldiari lotuta dauden konpromiso-kredituak, kasuan kasuko aurrekontu-kredituetan.
 - b) Aurrekontuen proiektua aurkezten denetik bera onesten den bitartean egiten diren aldaketak, baldin eta plantilla eta lanpostuen egoerari badagozkio.
 - c) Adjudikazioen saldoak, baldin eta 2018ko abenduaren 31n aintzatetsita dagoen betebeharrak faserak helduak ez badira, eta Langileen ordainsariak I. Kapituluari ez badagozkio.
 - d) Aurretiazko kreditu ziurtapenen jaulkipenei dagozkien zenbatekoak. Ziurtapen horien ordean behin betiko gastua egozteko aurrekontuetako kredituen pentzudan bidezkoak izango diren kontabilitateko dokumentuak ezarriko dira.

9. artikulua. — *I. Kapituluko kredituen kudeaketa. Langileen ordainsariak*

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko pertsona titullarrak edota foru erakunde autonomiadunetako Lehendakariak edo Kudeatzailerak arloko pertsona titullarrek izango dute eskumena, gastua eskuetsi eta xedatzeko, betebeharrak aintzateseko eta langileen ordainsariei buruzko espedienteetako ordainketa proposatzeko, norbanakoen aseguruiei dagozkienak izan ezik; egin-eginean ere, espediente horiek Ogasun eta Finantza Sailak kudeatuko ditu.

10. artikulua. — *Sailen diru sarreraren kudeaketari buruzkoa*

1. Beste erakunde batzuekin finantzatzeko diren gastuei dagozkien diru sarrerak diru sarreraren aurrekontuan aintzatesiko dira, ondorengo lehenaldietan xedatutakoaren arabera.
2. Finantzaketa egiteko, aurretiaz hari dagokion gastua betearazi behar bada, orduan likidazioa gastuaren betebeharraren aintzatespeneko fasean bertan egingo da; horrezaz gain, likidazio hori zordunari jakinaraziko zaio, beste agiri guztiekin batera; horren helburua, azkenik, diru sarrera egiteran likidazioaren zenbakia adieraztea izango da.
3. Gastua aurretiaz egin behar ez bada diru sarrera egiteko, orduan eskubidea kontuetan aintzatesiko da, zelan eta sailak kudeatzen duen likidazio egokiaren bitartez, sortzapen unean, eta kobrantza kontutan hartzeke.
4. Europako Batasunaren finantzaketa erabiltzen diren diru sarrerak aurrekontuetan sartu, eta haien kontabilizazioa egiteko, Ogasun eta Finantza sailburuak dauka eskumena.
5. Sailak egindako ekintzek eratorritako edozein diru sarrera Ogasun eta Finantza Sailari jakinaraziko zaio, diru sarreratzat jo dezan.



6. Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien arteko hitzarmenak direla eta sortzen diren diru-sarrerak, hitzarmen horietan ezarritakoarekin bat kudeatuko dira.

7. Hirugarren batzuen finantzakidetasunari lotuta dauden obren jarduketak eta be-tearazpenak finantzaketa planei lotuta egongo diren gastuen berariazko proiektuetan zehaztuko dira.

11. artikulua. — *Elkar finantzagileen gastuen doiketak*

Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza sailburuak proposatu eta gero, aurrekontuetako gastuen orrietan doiketa egokiak egiteko erabaki ahal izango du, baldin eta elkar finantzaturiko proiektuen gastuetarako kreditu jakin batzuk finantzatzeko loturiko baliabideen aurreikuspena benetan ezarritakoa baino txikiagoa bada.

Doiketa, honelaxe egingo da: kredituak zenbateko horretan ezin xeda daitezkeela adierazi eginaz.

12. artikulua. — *Foruzko herri arloaren barruko transferentziak*

Erakunde-administrazioa finantzatzeko Foru Administrazioak aurrekontutik erabiltzen dituen kredituak irmoki igorriko dira, egin behar diren ordainketak gauzatzeko beharrezkoesten den neurrian, beti ere, finantzen aldetik dauden beharrianen arabera eta arau bidez ezartzen den prozeduraren edura.

Horretarako, aitatu izakientzat diren transferentziak tramitzatzeko proposamenarekin batera txosten bat bidali beharko da nahitaez, zein Ogasun eta Finantza Saileko Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen zuzendari nagusiak komenigarritasunari buruz ematen duena baita.

IV. TITULUA

SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOKO LANGILEEN KUDEAKETARI BURUZKOA

I. KAPITULUA

SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOKO PLANTILLA

13. artikulua. — *Plantillaren osaketa*

1. Sektorre publiko administratiboaren 2019ko ekitaldirako plantilla osatzen dute Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretako langileen eranskinean zerrendaturik datozen funtzionario eta lan-kontratuko en multzoetan sailkaturiko plazez.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2019. urteko ekitaldiko aurrekontu orokorretan, plaza guztiak zuzkitzen dituzten kredituak eta eurekin elkartuta dauden lanpostuen bidez, urtearen amaieraraino beharrezkotzat jotzen den zenbatekoarekin batera. Halaber, plaza lotu gabe duten lanpostu guztiek edo batzuek zuzkituta dituzten kredituak onetsi dira, urte amaierara arte beharrezkotzat jo den zenbatekoarekin.

Aurrekontuen onesprenak esan nahi du aurrekontuen tramitean egin diren aldarazpenen emaitzako plantilla onartzen dela era formalean, eta baita onspren berririk eskatzen ez duten aldarazpen horiek onesten direla ere.

3. Iraupen mugatuko lan kontratazioek ez dute plantilla osatzen, eta egin behar diren kontratuak Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan horretarako ezarriak izan daitezkeen zenbatekoek zehaztu egingo dituzte.

4. Halaber, ez dira plantillako kide aldi baterako programak gauzatzeko edo lanak metatzeko ordezkapen bitarteko funtzionario izendatzen direnak.

14. artikulua. — *Plazen sorkuntza, aldarazpen eta amortizazioa*

Plantillako plazak sortu, aldarazi edota amortizatzeko, Foru Aldundiaren edo foru erakunde autonomiadunak bakoitzaren organo eskudunaren erabakia beharrezkoa izango da; erabaki horretan beren beregi adierazi beharko da zeintzuk diren aurreko aldakuntzen ondoriozko eragin ekonomikoak eta ondoko artikuluko irizpideak erabiliko dira.

**15. artikulua.—I. Kapituluako gastu igoeraren mugapena**

1. 2019. urteko ekitaldian zehar, bakarrik onetsi ahal izango dira, plantilla gehitzeko edo aldarazteko espedienteak, beste plaza batzuen bidezko postuen bidez zuzkituta dituzten kredituaren gutxipenaren bidez konpentsatzen denean. Hortaz, plazak edo lanpostuak sortzeko, lehendaurrez ekonomi zuzkidura berdina edo handiagoa duten plaza edota lanpostuak amortizatu behar dira.

2. Aurreko mugapena ez da ezarriko plazen sorkuntza edo aldarazpenetarako, baldin eta beroriek behin-behineko langileen izendapenaren, auzibidezko epaia betetzearen edota eskumen berriak bereganatzearen ondorioz gertatzen badira.

Ez da ezarriko, ezta ere, C2 sailkapen taldetik C1 talderako barruko sustapeneko pertsonal funtzionarioen barne igoerako balizkoetan, horrelakoetan dei egindako plazen hornidurak berez, besterik gabe, C2 taldeko dagozkien plazen amortizazioa erakarriko baitu.

Aurreko lerroaldearen ondorioetarako, aipatu plazen arteko oinarritzko ordainketen aldeko tarteak bakarrik sartuko da aurrekontuetan, amortizatzeko plazen kontsumitzeko dauden kredituak plaza hornitueta pasatu izanik (bidezko lanpostuen bitartez). Prozedura honen bidez hornitzeko aipatu plazak kontzeptu bakar bat bezala eta bakoiztu gabe agertuko dira hornituak izan daitezen arte.

Aurreko mugapena ez zaie ezarriko, halaber, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak onetsitako giza baliabideen planaren ondorioz har daitezkeen neurriak direla eta egindako plaza edo/eta lanpostu aldarazpenei edo osasun arrazoiengatik bigarren jarduerako edo mugikortasuneko plan edo prozeduretan ezartzen diren kasuei.

3. Artikulu honetako 1. idatz-zatian ezarritako muga ez zaie aplikatuko lansaioaren murrizpenari buruzko ustezko akordioen ondorioz sortuko diren lanpostuei.

4. Lehenengo lerroaldean ezarritakoa gorabehera, Gobernu Kontseiluak, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak proposatuta, langile-zuzkidura berriak sortzea baimendu ahal izango du lanpostuen zerrendetan aldaketak gertatzen badira honako egoera hauen ondorioz: eskumenak benetan eskualdatzea, organo edo zerbitzu berriak sortzen direnean egindako langile-zuzkidura berriak sortzea; kanporatutako eta kontratatutako zerbitzuen zuzeneko kudeaketa hartzea; egiturazko izaera duten lanpostu edo plazak sendotzea; foru arauak ematea edo Gobernuak egiturazko ez diren plan, programa edo jarduketa garrantzitsuak promulgatzea. Nolanahi ere, finantzaketa egokia egon behar da langile-zuzkidura berriok sortzeko eta funtzio publikoan eskuduna den organoak, aldeztu aurretik, sorrera horren aldeko irizpen eman behar du, eta bertan adierazi behar da langileen inguruko beharrezko berriei ezin zaiela aurre egin lanpostuak berritxikiz, langileak berrizendatuz edo giza baliabideak arrazionalizatu eta antolatzeke beste neurri batzuen bidez. Halaber, baimendu dezake langile-zuzkidura berriak sortzea artikulu honetako bigarren eta hirugarren zenbakietan ezarritako kasuetan.

16. artikulua.—Kreditu soberakinak

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak aurreikus daitezkeen plaza betegabeen kredituen soberakinak ondoko hauetarako erabili ahal izango ditu, 24. artikuluan adierazten den xedeez gain: lehenik, berauen jatorrikoak ez diren beste plaza batzuk finantzatzeko; bigarrenik, aldi baterako kontratuak egiteko, baldin eta horiek beharrezkoak badira zerbitzuek egoki jardun dezaten.

17. artikulua.—Enplegu publikoaren eskaintza

1. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko pertsona titularrak edo, bestela, Foru erakunde autonomiadunetako gobernu organoek proposatu eta gero, Foru Aldundiak, bere Gobernu Kontseiluaren bidez, enplegu publikoaren eskaintza edo eskaintzak onetsi ahal izango ditu, bai bere burua antolatzeke, bai bere erakunde autonomiadunak antolatzeke.



2. Giza baliabideen beharrianek aurrekontuetan esleipena badute, baina ezin bada bete lehendik dauden langileekin, orduan beharrian horiek betetzeko, enplegu publikoaren eskaintza egin ahal izango da.

18. artikulua.— Lanpostuen zerrenda

1. Foru Aldundiak eta Foru erakunde autonomiadunetako organo eskudunek, beren erakundeetan diren lanpostuen zerrenda (LPZ) onetsiko dute, bai eta beraren aldarazpenak ere, beraren barruan izendazioa eta ezaugarri nagusiak, beraiei dagozkien ordainsari osagarriak, bete ahal izateko eskatzen diren betekizunak, hizkuntza eskakizuna eta beronen derrigortasun data, bai eta hornitzeko sistema hartu beharko baitituzte.

Ondore horietarako aurrekontuaren onespenez, Foru Aldundiaren LPZri dagokionez, LPZn egin den aldarazpena era material eta formalean onesten dela esan nahi du, erantsi den eranskinaren arabera, eta, halaber, horiek argitaratzen direnean LPZren aldarazpenak argitara emateko beharriana betetzen da.

2. Foru Aldundiaren Lanpostuen zerrendan aldaketak jazotzen badira egitura organikoan aldaketak direla bide, orduan aldarazpen horien gaineko txostena lehendaurrez eman beharko du Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak. 15. artikulua ezartzen dituen murriztapenak betetzeko, kontuan hartuko dira bai murriztapen horiek bai haien salbuespenak ere, eta azken horien artean, bereziki, Ahalduen Nagusiaren uztailaren 2ko 94/2015 Foru Dekretuak ezarritako jarduera-esparru berriak sortzearen ondoriozkoak.

3. Halaber, foru sailen egitura organikoetan aldaketak egiteko proposamenak egi-ten badira, eta aldarazpen horiek lanpostuen zerrendari aldakuntzak ekartzen badizkio- te, orduan proposamen bat erantsi beharko dute, lanpostuak bezala horrekin zerikusirik duten langileak banatzeko.

19. artikulua.— Lanpostuen hornidura

1. Lanpostu hutsak betetzeko, indarrean dirauen legerian ezarritako prozedurak era- biliko dira; eta horretarako, deialdiaren betekizunei (Lehiaketa –unitarioa, eremukoa, meri- tu zehatzen aldagarri guztiena, besteak beste- edo Izendapen Askea) lotuta egongo dira.

2. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak, foru sailek es- karia egin ondoren, langileak sail baten barruan edo sailen artean berriro banatu ahal izango du, baldin eta Zerbitzuaren beharrianek horretara eragiten badute eta lanpostu berezitu gabeetan egiten bada; lanpostuok, gainera, izaera berdina, maila eta osagarri berezi berdina izan behar dituzte, bai eta horniera berdina ere. Halaber, Lehendakaritza Sailak izango du eskumena, langileak berriro esleitu behar direnean.

Halaber, zerbitzuak modu eraginkorrean emateko eta giza baliabideak ere era era- gingarrian erabiltzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren enplegu publikoaren antolamendurako planean aurreikusirik dauden neurriak eta prozedurak burutuko dira.

3. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legean ezarritako baliz- koetan, Foru Aldundiko enplegatuak atxiki ahal izango dira, beren kidego edo eskalari datxekion beste lanpostu bat aldi baterako egin dezaten.

4. Foru Aldundiko funtzionarioak, zerbitzu-eginkizuneko legez, esleitu ahal izango dira beren kidego edo eskalari datxekion beste lanpostu batean jardun dezaten, edo beraiek atxikita dauden postuaren eginkizun berezietan beste batzuk egin ditzaten ere. Eskumena, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko pertsona titularrak izango du.

5. Langileria lanpostuei atxikitzeari dagokion arloan eskuduna den organoak langi- leak atxikitze eta behin betiko, aldi baterako edo behin-behineko hornidura-sistemak garatzeko irizpideak onetsi ahal izango ditu.



II. KAPITULUA

**SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOKO PLANTILLARI ETA LANPOSTUEN HORNIDURA-
RI DAGOZKIEN ALDARAZPENETAN BETE BEHARREKO PROZEDURA****20. artikulua.—*Langile berrien altak***

1. Hutsik dauden plaza guztiei dagokienez, karrerako funtzionarioak eta bitarteko funtzionarioak postuaz jabetzeari edota mugagabeko lan kontratazioari dagozkien espedienteek, beraiek sinatueran, barru izan behar dute ondoko txosten hau: plazaren izaera eta ekitaldiaren amaieraraino aurrekontuetan zuzkidura izatea aditzera emango duen Ogasun eta Finantza Sailarena; eta hori guztia egingo da, berari dagozkion organiko, programa eta ekonomikoen arabera.

2. Kasuan kasu, Foru Aldundiaren organo eskudunak, foru sailek eskaturik eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren bidez, kontratuak egin ahal izango ditu aldi baterako lan araubidean; eta horretarako Langileen Estatutuan eta indarreko gainerako xedapen osagarrietan xedatutakoaren arabera jokatu du.

Aldi baterako kontratazioen proposamenak, bitarteko izaera duten iraupen zehatzeko kontratuenak izan ezik, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko kontratazio-organismoak egindako erreserbari buruzko fiskalizazio-izapide bat edukiko du erantsita, eta horretan honako hauek adierazi behar dira:

- a) Kontratuaren edo ekitaldiaren amaierarainoko kredituaren zenbatekoa.
- b) dierazitako zenbatekoa zuzkitzeko xedatzen d(ir)en aurrekontu-partida(k).

3. Behin-behineko langileak postuaz jabetzeko, nahitaezkoa izango da lanpostutsak aurrekontuetan zuzkidura izatea, lanpostuen zerrendari dagokionez.

4. Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskudunak bitarteko funtzionarioak izendatu ahal izango ditu, bete gabe dauden plazetarako, nolana ere den, funtzio publikoari buruz indarrean dirauten legezko xedapenetan ezarrita dagoena bete beharko dute. Halaber, eta indarrean dauden legezko xedapenetan ezarri den eran, aldatzeko langile funtzionarioak izenda ditzake aldi baterako programak burutzeko, karrerako pertsonal funtzionarioa ordeztzeko edo lanpostuak aldi baterako betetzeko, eta baita aldi baterako programak burutzeko eta ataza gehiegi edukitzeagatik edo atazak metatu direlako edo indarreko legeriak baimentzen dituen gainerako guztiak ere. Horri dagokionez, horretarako dauden aurrekontuko muga barruan, Gobernu Kontseiluak bitarteko funtzionarioen izendapenak zein haiek zehaztu eta gauzatzeko baldintzak aurretiaz onartuta, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko titularraren foru agindu bidez formalizatu eta zehaztuko da zer pertsona izendatzen diren, izendapenak noiz hasten diren eta zer arrazoi egongo den haiek uzteko, eta izendapen horiekin zer estali nahi den.

21. artikulua.—*Langileen bajak*

1. Langileen bajatzat jotzen da: edozein pertsonak Bizkaiko Foru Aldundiko plantillan betetzen ari zen plazari uztea, baldin eta mugagabeko lan-kontratuko langilea edo karrerako funtzionarioa bada; lanpostua edo plaza uztea; ordeztuaren ondorioz edozein langileri lanpostua utzaraztea; aldi baterako zerbitzualdi baten ondorioz lanpostuari uztea.

2. Foru Aldundiak plazaren amortizazioa erabakitzen duenean izan ezik, bitartekotasunez edo finkotasunez plaza betetzen duten langileen edozein bajak lanpostu huts bat sortu edo askatuko du, plazaren erreserba dakarten lanpostu hutsak izan ezik.

22. artikulua.—*Langileen aldarazpenak*

1. 2019ko ekitaldiaren hasieran, berez sartu beharko dira kontabilitatean Foru Aldundiak onesten dituen aldarazpenak, baldin eta aldarazpenok aurkezten badira aurrekontuei buruzko proiektua Batzar Nagusiei azaltzen dietetik harik eta foru arau hau indarrean jarri artean.



2. Lanpostuen hornidura osatzen duten kreditu aldarazpenen tramitazioa Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak bideratuko du; Ogasun eta Finantza Sailak egindako fiskalizazio eta kontabilizazio izapidea jasoko du (baliabide informatikoak baliatuz egina). Izapide hori ez da aplikagarria izango egin diren aldarazpenetan, baldin eta artikuluko lehenengo idatz-zatia ezarriaz egiten badira direlako aldarazpenak.

3. Plantillako plaza eta lanpostuetarako kreditu zuzkidura handiagoak onets badaitenez, orduan Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak beraiei dagozkien kreditu aldarazpenak tramitatu behar izango ditu.

4. Beste alde batetik, baldin eta I. Kapituluko kredituak gehitu beharko balira foru arau honetako IV. Tituluko III. Kapituluko aipatzen duen ordainsari araubidea ezartzearen ondorioz edota legezko xedapen orokor, jurisdikzioko ebazpenen zein Foru Administrazioaren zerbitzupeko langileari ezarri ahal zaizkion besteren batzuen ziozko alokairu igoeren ondorioz, orduan Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko diputatuak Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari kreditu zabalkuntza eskatuko dio.

5. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak proposamena egin ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak enplegu planak onetsi ahal izango ditu, bai eta diru-laguntza bidezko erretiro planak, enplegu publikoaren antolamendurako planak sar ditzaketen giza baliabideen arrazionalizazio beste sistema batzuk eta egokiesten direnetarik beste edozein sartzen duten sistemak ere, baldin eta plan horiek beharrezkotzat hartzen badira giza baliabideak hobeto kudeatzeko, indarrean dirauen legeriaren arabera.

6. Aurreko lerroaldeetan xedatutakoa gorabehera, baldin eta kreditu aldarazpenak egin behar badira eta aldarazpen horiek badakarte I. Kapituluan jarritako kredituen gutzitzkoaren gehikuntza, orduan Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak Ogasun eta Finantza Sailari aurrekontu zuzkidura egokia eskatuko dio.

23. artikulua.— *Foru erakunde autonomiadunei aplikatu beharrekoak*

20, 21 eta 22. artikuluetan ezarri dena aplikatuko zaie Foru erakunde autonomiadunei eta ordeztu egingo dira Foru Aldundiko organoei buruz dauden erreferentziak eta horien ordeztu Erakunde Autonomiadunei horiei buruzkoak jarri.

III. KAPITULUA

SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOKO LANGILEEN ORDAINSARI ARAUBIDEA

24. artikulua.— *Langileen ordainsarien*

1. Ahaldun Nagusiaren, diputatu nagusiordearen, foru diputatuen, zuzendari nagusien eta behin-behineko langileen ordainsariak 2018ko abenduaren 31n indarrean daudenak izango dira, data horretan sendotuak, eta Administrazio Orokorreko langileentzako soldata-masak izango duen besteko gehikuntza portzentuala izango dute. Ordainsariok honako foru arau honetako artikuluan hurrengo zenbakietan ezarritik dauden irizpideen arabera zehaztuko dira, produktibitateari dagokion zatia barne.

2. Foru Administrazioaren zerbitzupeko langileen urteko ordainsari osoen kopurua, 2018ko abenduaren 31n indarrean eta sendotuta dauden arabera, foru arau honetan ezarritakoaren arabera gehituko da, lege ezarritako mugen barruan. Eta hori horrela bada ere, zenbaitetan egokitu egin beharko dira ordainsari osagarriak, bermatzearren lanpostu bakoitzari esleitutakoak bat datozela kasuan kasuko lanpostuak duen zailtasun tekniko bereziarekin, dedikazioarekin, erantzukizunarekin, arriskugarritasun edo nekagarritasunarekin; egokitzapenok Foru Aldundiak onetsiko ditu. Gainera, beste zenbait kasutan ere aldatu beharko dira ordainsari osagarriok: programa bakoitzari atxikitako pertsona kopurua aldatzearen arabera; programa bakoitzerako ezarri diren helburuen lorpen graduan arabera, edo aldaketok aplikatzeak duen emaitza indibidualaren arabera; Foru Aldundian eskumena duen organoak onetsiko ditu azken aldaketa hauek.

Ildo honetatik eta etekinaren ebaluazioaren eta bere emaitzen aplikazioen sistema batekin jarraitu ahal izateko, Foru Aldundiak ekoizkortasunagatiko osagarriarekin ordaintzeko funts gehigarri bat ezar dezake, bai etekinen pizgarrien bidez edo baita, hala



denean, ekoizkortasunagatiko kontzeptuaren beraren bidez; adierazi den funtsa hori I. kapituluaren —pertsonalaren gastuak— gertatuko diren ekonomien emaitzarekin zuzki daiteke.

Kontzeptu honengatik —ekoizkortasuna— ematen diren ordainsariak edo eskersariaren bidez ematen direnak denak batera ordainduko zaizkie 1. idatz-zatian azaltzen diren langileei eta artikuluko honetako 2. idatz-zatiko lehen paragrafoan azaltzen direnei, bi kontzeptuetan —hala denean—, Foru Aldundiak funts hori banatzeko ezartzen eta onesten duenaren arabera.

Erakunde autonomoek, proportzionaltasun irizpide bat betez, urteko ordainsariak ezartzeko emaitzako zenbatekoak inkorpora ditzakete.

3. Honen aurreko atalean adierazi denaren ondorioz honako ekitaldi honetan ordain daitezkeen zenbatekoak 2001. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 13/2000 Legearen xedapen gehigarrietatik hamaikagarrenean ezarri diren irizpideei lotuta egon daitezke ekitaldi horretarako enplegatu publikoak diren pertsonalaren aldiroko ordainsarien barruan finkatzearen ondoreetarako hurrengo urteko bidezko zenbatekoak inkorporatzeko.

Era berean, 2018. urteari dagokion ekitaldian kontzeptu horren kariz ordaindu izan diren zenbatekoak aurreko paragrafoan adierazi den irizpidearen arabera izango dira, honako artikuluko honen lehenengo eta bigarren idatz-zatietan aipatzen diren ordainsarien barruan sendotzearen ondoreetarako.

25. artikulua.— *Foru erakunde autonomiadunei aplikatu beharrekoak*

Honen aurreko artikuluan ezarri dena foru erakunde autonomoei aplikatuko zaie eta ordeztu egingo dira Foru Aldundiko organoei buruz dauden erreferentziak eta horien ordeztu erakunde horiei buruzkoak jarri.

IV. KAPITULUA

ENPRESA-SEKTORE PUBLIKOKO LANGILEEN KUDEAKETA

26. artikulua.— *Langileen kudeaketa Foru enpresa-erakunde publikoetan*

Foru enpresa-erakunde publikoetako langileei dagozkien gaien tramitazioa, zeregin hori duten unitate administratiboen bidez egingo da; horrezaz gainera, Bizkaiko Foru Aldundiarentzat aurreko kapituluaren ezarritako mugapen eta prozedura berberak ezarriko zaizkie langile horiei.

27. artikulua.— *Langileen ordainsarien*

Enpresa-sektore publikoa osatzen duten erakundeetako lehendakari, zuzendari edo kudeatzaileen ordainsariak, 2018ko abenduaren 31n indarrean eta sendotuta dauden arabera, foru arau honetan ezarritakoaren arabera gehituko dira, lege ezarritako mugen barruan, eta foru arau honetako 24. artikuluko ezartzen dituen irizpideei jarraiki zehaztuko dira.

2019. urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreekin, enpresa-sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langile guztien ordainsari osoak, 2018ko abenduaren 31n indarrean eta sendotuta dauden arabera, foru arau honetan ezarritakoaren arabera gehituko dira, lege ezarritako mugen barruan, eta foru arau honetako 24. artikuluko ezartzen dituen irizpideei jarraiki zehaztuko dira.

28. artikulua.— *Lanpostuak sortu, aldarazi edota amortizazioa*

Lanpostuak sortu edota aldarazteko proposamenak Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren baimena beharko du.

2019ko ekitaldian, plantillaren aldarazpenak edo gehikuntzak onetsiko dira soilik, baldin eta horietatik eratortzen den gastuaren gehikuntza konpentsatzen bada, beste lanpostu batzuetako kredituaren murrizketaren bidez. Ondorioz, lanpostuak sortzeak nahitaez ekonomia zuzkidura bereko edo handiagoko beste postu batzuen amortizazioa eskatuko du.

**29. artikulua.— *Langileak kontratatzea***

1. 2019ko ekitaldian zehar, Enpresa-sektore publikoetako langile finkoen plantillak aurrekontuetan daudenak izango dira, eta beraiek mugatzaileak izango dira.

Horrenbestez langileen kontratu mugagabeak egingo dira soil-soilik, bete gabe dauden plantillako lanpostuetarako.

Aurreko mugaren eraginetik kanpo egongo dira, baita ere, lanpostuen aldaketak, beti ere hurrengo bidez hartutako neurrien ondoriozkoak badira: Enpresa-sektore publikoetako, Bizkaiko Gobernu Kontseiluak onartuak izanik.

2. Halaber, 2019ko ekitaldian zehar, aurreko zenbakiko erakundeek ezin izango dute Aurrekontuan sartu gabeko beste langilerik kontratatu aldi baterako, salbuespeneko kasuetan izan ezik, eta premiazko beharrian luzaezinak betetzeko salbu; baina, horretarako, Foru Aldundiak lehendaurrez eskuespena eman behar du.

3. Bitartekotasun kontratuak lehengo debekutik kanpo geldituko dira, baldin eta lanpostuaren erreserbarako eskubidea duten langileen ordezkioak jartzeko badira.

4. Salbuespen legez, eta aurrekontu-ekitaldian zehar sortu berri diren foruzko herri enpresei dagokien ginoan, enpresa horiek langileen plantilla onetsi ahal izango dute ezarria duten prozeduraren arabera.

V. TITULUA**FINANTZA ERAGIKETEI BURUZKOA****I. KAPITULUA****BERMEAK****30. artikulua.— *Bermeen mugak eta birfidantzamendua***

1. Bermeen gehieneko zenbatekoa 3.000.000,00 eurotan ezarri da, Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren Testu Bateginaren 128. artikuluan ezarri denaren ondo-reetarako.

2. Halaber, 2019. urteari dagokion ekitaldian zehar, Bizkaiko Foru Aldundiak elkar bermatzeko sozietateek erakunde horiekin sinatzen diren hitzarmen egokiei dagokienez ematen dituzten abalak birfidantzatu ahal izango ditu, Ogasun eta Finantza Sailaren Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak egiten duen txostena aztertu ondorik.

Aurreko paragrafoan aipatu den birfidantzamenduaren gehieneko zuzkidura 350.000,00 eurokoa izango da, nola gauzatzen kontuan hartu gabe, sinatzen diren hitzarmenen indarraldian zehar.

II. KAPITULUA**ZORPEKETA****31. artikulua.— *Muga***

Bizkaiko Foru Aldundiak baimena izango du Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik Lurralde Historikoaren aurrekontuetako zorpetze-eragiketak egiteko, baldin eta 2019ko abenduaren 31ko Foru Zor Bizia ez bada 1.230.000.000 eurotik gorakoa.

32. artikulua.— *Zorpeketa eta finantza eragiketa Merkataritzako foru sozietatetan*

1. 2019ko abenduaren 31n, ondorengo zerrendan ageri diren foru merkataritza sozietateen zorpetze-eragiketek epe sortutako epe luzeko zorren saldoak ezingo ditu kopuru hauek gainditu:

- Aparkabisa Bizkaiko Garraio Gunea, A.B.: 1.100.000,00 euro.
- Azpiegiturak, S.A.: 45.000.000,00 euro.
- Interbiak, S.A.: 761.600.000,00 euro.



- Sestao Bai, S.A.: 11.400.000,00 euros.
- 2. 2019ko abenduaren 31n, ondorengo zerrendan ageri diren foru merkataritza sozietateen merkataritzako epe luzeko zorpetzearen bolumenak ezingo ditu kopuru hauek gainditu:
 - Aparkabisa Bizkaiko Garraio Gunea, A.B.: 241.377,00 euro.
 - Azpiegiturak, S.A.: Etxebizitzan edo sektore industrialerako lurzoruen sustapenean jarduteko plan foralean jasotako jardueri zuzendutako 17.000.000,00 euro-ra arteko merkataritzako gehienezko zorpetzea.
 - Sestao Bai, S.A.: merkataritzako zorpeketa 4.923.000,00 euro.
- 3. Merkataritzako foru sozietateek ezin dute bermerik eman edo gainerakoen aldeko zorpeketa eragiketarik egin Gobernu Kontseiluaren berariazko erabakirik gabe, beti ere aurrez Ogasun eta Finantza Saileko txostena behar dela.

VI. TITULUA**LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEI BURUZKOA****I. KAPITULUA****UDALEN DIRU SARREREI BURUZKOA****33. artikulua. — Toki zergen bilketa**

1. Udalei zergen kobrantza bereganatzeko duten aukerak indarrean dirau; hala eta guztiz ere, Foru Aldundiak zerga-bilketa zerbitzu hori ematen iraun ahal izango du, beti ere udalekin beraiekin sinatzen dituen hitzarmenen arabera.
2. Aurreko idatz-zatian xedatu dena burutzeko egingo diren eragiketak aurrekontutik kanpokoak izango dira.

34. artikulua. — Udalen partaidetza zerga itunduetan

Udalerriek partaidetzak izango dituzte zerga itunduetako diru sarreretan; eta partaidetza horiek Udalkutxa «Udal Finantzaketarako Foru Funtza» osatuko dute.

35. artikulua. — Toki korporazioen partaidetza itundu gabeko zergetan

Ekonomi Ituneko 51. artikuluan xedatutakoaren arabera zeharkako ekarpenen zioz itundu gabeko zergetan toki korporazioek duten partaidetzaren bidez, toki korporazio horiei dagozkien baliabideak aurrekontuaz kanpokoak izango dira eta euren banaketa egingo da, zelan eta zerga itunduetako partaidetzaren arabera ehuneko berberetan.

36. artikulua. — Aurrekontuetatik kanpoko bestelako diru sarrerak

Jarraiko kontzeptuon zioz, Foru Ogasuneko diru sarrerak eta udalei dagozkien ordainketak ere izango dira aurrekontutik kanpokoak: Bizkaiko udalerriei, ezarri behar den arautegia dela eta, eratxikitako telekomunikazio jarduleen ziozko zerga-ordainketa.

II. KAPITULUA**UDALKUTXA - UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSARI BURUZKOA****37. artikulua. — Zenbatekoa**

2007-2011 bosturtekorako ekarpenei buruzko martxoaren 23ko 2/2007 Legearen xedapen erantsietatik 4.ean ezarri dena betez eta Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak 2018ko urriaren 11n hartu dituen erabakien arabera, eta, halaber, Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluak 2018ko urriaren 17an egin zuen bileran erabaki zuena aintzat hartuta, udalen finantzaketarako funtza Udalkutxa- finantzatzeko 2019rako aurrekontuko kreditua, hots, toki ogasunei buruzko foru arauak aipatzen duena, 869.135.526,00 eurokoa da.

**38. artikulua.—Zerga-ahalegina**

Toki Ogasunei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren eredura, udalaren zerga-ahalegintzat hartuko da, 2018. urteko funtsaren likidazioaren eta 2019ko konturako ematearen kalkuluaren ondoreetarako, ondoko formula ezartzetik ateratzen den emaitza:

$$Ef(m) = \frac{RcT(IBC)}{RcT} \times \frac{Rcm(IBC)}{Rpm(IBC)} + \frac{RcT(IAE)}{RcT} \times \frac{Rcm(IAE)}{Rpm(IAE)} + \frac{RcT(IVTM)}{RcT} \times \frac{Rcm(IVTM)}{Rpm(IVTM)} + \frac{RcT(TA)}{RcT} \times \frac{TAm}{TABz} + \frac{RcT(TB)}{RcT} \times \frac{TBm}{TBBz}$$

Izatea:

Ef(m)	«m» udalerrriaren zerga ahalegina.
RcT(IBC)	Bizkaiko Lurralde Historikoak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zioz lortutako diru-bilkin likidoaren zenbateko osoa.
RcT(IAE)	Bizkaiko Lurralde Historikoak Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren zioz lortutako diru-bilkin likidoaren zenbateko osoa.
RcT(IVTM)	Bizkaiko Lurralde Historikoak Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren zioz lortutako diru-bilkin likidoaren zenbateko osoa.
RcT(TA)	Bizkaiko Lurralde Historikoak, ur horniduraren ziozko tasaren kontzeptuan, lortutako diru-bilkin likidoaren zenbateko osoa.
RcT(TB)	Bizkaiko Lurralde Historikoak Zabor Bilketaren tasaren zioz lortutako diru-bilkin likidoaren zenbateko osoa.
RcT	Bizkaiko Lurralde Historikoak Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Ekonomi Jardueren gaineko Zerga, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga, Ur Horniduraren gaineko Zerga eta Zabor Bilketaren gaineko Tasaren zioz lortutako diru-bilkin likidoaren zenbateko osoa.
Rcm(IBC)	«m» udalerrriak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zioz lortutako diru-bilkin likidoa.
Rcm(IAE)	«m» udalerrriak Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren zioz lortutako diru-bilkin likidoa.
Rcm(IVTM)	«m» udalerrriak Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren zioz lortutako diru-bilkin likidoa.
Rpm(IBC)	«m» udalerrrian Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zioz lortutako litzatekeen diru-bilketa, baldin eta egoitzazko ondasunen erabilera guztietako gehieneko tasa eta landa izaerako ondasunen gehieneko tasa ezarriko balira.
Rpm(IAE)	«m» udalerrrian, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren zioz, lortutako zatekeen diru-bilkina, baldin eta gehieneko koefiziente eta indizeak ezarri balira.
Rpm(IVTM)	«m» udalerrrian, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren zioz, lortutako zatekeen diru-bilkina, baldin eta gehikuntza koefizientea eta aplikagarria den gehieneko koefizientea ezarri balitz 12 eta 13,99 zaldi fiskal arteko potentzia eta motako ibilgailu turismoentzat.
TAm	«m» udalerrrian, uraren horniduraren tasa dela-eta 140 m3 ur, hiruhilerro 35 m3, kontsumitzen dituen familia etxebizitza batek ordaindu behar duen urteko zenbatekoa.
TABz	Aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen tasek Bizkaiko Lurralde Historikoan duten batez bestekoa.
TBm	«m» udalerrrian, familia etxebizitza batek zabor bilketaren tasaren zioz ordaindu behar duen urteko zenbatekoa.
TBBz	Aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen tasek Bizkaiko Lurralde Historikoan duten batez bestekoa.

**39. artikulua. — Aurrekontuetako kredituak eta kontura egindako ordainketak**

1. Toki Ogasunei buruzko Foru Arauan ondore hauetarako ezarri denarekin bat etorrituz, aurrekontuetan 2019. urterako dauden kredituak honako hauek dira:

- a) Aurrekontuetan Bilboko Udala finantzatzeko izendaturiko kreditua, 329.050.543,00 eurokoa izango da.
- b) Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauak jasotzen dituen ezustekoak finantzatzera eta udalerrien elkartera bideratutako aurrekontu-kredituak 6.518.516,00 eurokoak eta 1.303.703,00 eurokoak dira, hurrenez hurren.
- c) Aurrekontuetan, gainerako udalerriak, Bilbo izan ezik, finantzatzeko izendaturiko kreditua 532.262.764,00 euro izango da; izan ere, diru kopuru hori beraien artean banatzeko, Foru Arauan zedarrituriko irizpideak erabiliko dira.

Banaketarako irizpideak Toki Ogasunei buruzko Foru Arauan ezarritakoak izango dira.

2. Aurreko zenbakian jasotako banaketa irizpideak aplikatzearen ondorioz udalerri bakoitzerako eta udalerrien elkarterako lortu den aurrekontu-kredituaren kargura, haie-tariko bakoitzari, hilean behin, konturako ordainketa bat egingo zaio, kreditu horren ha-mabiren baten zenbatekoa.

Ordainketa, hil bakoitzeko lehenengo hogeiei egunen barruan egingo da.

40. artikulua. — Zorren konpentsazioa

Udalek Bizkaiko Foru Aldundiarekin izan ditzaketen zorrak kobratzeko, Aldundiak udaloi ordaindu beharrekotik kenduko da, baldin eta ordaindu beharreko zor horren berri hilabete lehenago ematen baldin bada. Nolanahi ere den, epe hori laburtu egin daiteke, udal bakoitzak horretarako oniritzia ematen badu edo aurrerakinei badagokie.

41. artikulua. — Toki korporazioek eman beharreko informazioa

1. Udalerriek 2020. urterako itunduta dituzten zergen partaidetzak zehazteko asmoarekin, toki korporazio bakoitzak Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari ziurtagiri bana eman behar diote behar den informazioari barru hartuko duena. Ziurtagiri hori aurkezteko epea 2019ko irailaren 16an amaituko da.

2. Agiri horien erdiespena eta formatua sail horren foru agindu batez zehaztuko dira, 2019. urteko lehenengo hiruhilekoaren barruan.

3. Aurreko 2 puntuan zehaztu diren agiriak aurkezten ez duten udalerriek, koefizienterik txikiena duen udalerriari dagokion zerga-ahalegina ezarriko zaie.

42. artikulua. — Foru Aldundiak toki erakundeei eta Batzar Nagusiei eman beharreko informazioa

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak, 2019. urteko urtarilaren 31 baino lehen, udalerri bakoitzari banan-banan jakinaraziko dio Udal Finantzaketarako Foru Funtsean —Udalkutxan— parte hartzeagatik dagozkion konturako ordainketak eta aurrekontu-kredituaren zenbatekoa, 2019. urteari dagokion ekitaldiari dagozkionak.

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak, aldi berean, aurreko lerroaldean aipatutako zenbatekoak jasotzen dituen zerrenda igorriko die Batzar Nagusiei.

III. KAPITULUA**FINANTZA BABESAREN ARAUBIDEA****43. artikulua. — Toki erakundeen kreditu eragiketak**

1. 2019ko ekitaldian, toki erakundeen, horien organismo autonomoen, enpresa izaerako erakunde publikoen eta mendeko merkataritza-sozietateen, zatirik handienez merkatuko sarrerekin finantzatzeko ez diren zerbitzuak ematen edo ondasunak ekoizten badituzte, epe laburreko kreditu-eragiketak hitzartu ahal izango dituzte, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauarekin bat etorrituta.



2. Toki erakundeek eta haien menpeko erakundeek, Europako Kontuen Sisteman ezarritako definizioaren eta zehaztapenaren arabera administrazio publikoen sektorekoak direnek, 2018ko likidazioan aurrezki garbi positiboa lortzen badute (Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauko 55. artikuluan ezarri den bezala kalkulatu behar da), 2019ko ekitaldian epe luzerako kreditu berriak itundu ahal izango dituzte, baldintza hau betez gero: kapital biziaren guztirako bolumena ezin da izan likidatu edo sortutako sarrera arrunten %60 baino gehiago (kontabilitateko egoera-orri finkatuen arabera). Kreditu-eragiketa horietan Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Araua eta aurre egonkortasunari buruzko arautegia aplikatuko dira. Eragiketaren xedea inbertsioen finantzaketa zein lehendik ere badiren epe luzeko eragiketen guztirako ordezkia edo ordezkien partziala izan daiteke.

3. Toki erakundeek eta haien menpeko erakundeek, Europako Kontuen Sisteman ezarritako definizioaren eta zehaztapenaren arabera administrazio publikoen sektorekoak direnek, 2018ko likidazioan aurrezki garbi positiboa lortzen badute eta beraien zorpetze-koefizientea likidatu edo sortutako sarrera arrunten %60-110 bitartekoa bada (kontabilitateko egoera-orri finkatuen arabera), 2019ko ekitaldian epe luzerako zorpetze-eragiketak egin ahal izango dituzte, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak baimena emanaz gero. Eragiketa horietan Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Araua eta aurre egonkortasunari buruzko arautegia aplikatuko dira. Eragiketaren xedea inbertsioen finantzaketa zein lehendik ere badiren epe luzeko eragiketen guztirako ordezkia edo ordezkien partziala izan daiteke.

4. Toki erakundeek eta haien menpeko erakundeek, Europako Kontuen Sisteman ezarritako definizioaren eta zehaztapenaren arabera administrazio publikoen sektorekoak direnek, aurrezki garbi negatiboa lortzen badute edo beraien zorpetze-koefizientea likidatu edo sortutako sarrera arrunten %110etik gorakoa bada (kontabilitateko egoera-orri finkatuen arabera), 2019ko ekitaldian indarrean dauden beste epe luzerako kreditu-eragiketa batzuk birfinantzatzeko baino ezin izango dituzte eragiketa berriak itundu.

5. Aurrezki garbia eta zorpetze-maila kalkulatzeko sarrera arrunten zenbatekoa kalkulatu behar da, eta horretarako zenbateko hauek kendu behar dira: kapital-eragiketei lotutako sarrerak eta 1 - 5 bitarteko kapituluetakoz ezohiko sarreretatik legeriaren arabera edota aldirakotako ez izateagatik ohiko sarrera ez diren guztiak.

6. Kapital bizia kalkulatzeko 2018ko abenduaren 31n indarrean dauden eragiketa guztiak eduki behar dira kontuan (abalen ondoriozko arriskua barne); behar den kasuetan eragiketa formalizatuen saldoak eta proiektatutako eragiketen zenbatekoak gehitu behar dira. Ez dira kontuan hartu behar Udalkutxa-Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren behin betiko likidazioen ondorioz toki erakundeek itzuli beharreko saldoak. ez eta birfinantzatu beharreko eragiketak ere.

7. Eragiketa oro itundu baino lehen, kontu-hartzaileak txostena egin beharko du, eta txosten horretan bereziki aztertuko da toki erakundeak denboran zehar eragiketen betebeharrei, toki erakundeari doazkienei, aurre egiteko duen gaitasuna.

8. Ezingo da epea birfinantzatu Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan 2. idatz-zatien azken paragrafoan eta 49. artikuluan 2. idatz-zatien aurreikusirik dauden salbuespenetako kasuetarako formalizaturik dauden eragiketetan. Ekainaren 21eko 5/2012 Foru Arauaren babespean egindako eragiketen kasuan (Foru Arau horren bidez udalen zorpetze-mugak aldatu ziren 2012 ekitaldirako, kontratuen alorrean onartutako zor zehatzak ordaindu ahal izateko) eta ekainaren 12ko 6/2013 Foru Arauaren babespean egindako eragiketen kasuan (Foru Arau horren bidez udalen eta beren menpeko erakundearen zorpetze-mugak aldatu ziren 2013 ekitaldirako, zor zehatzak ordaindu ahal izateko), birfinantzaketa Bizkaiko Foru Aldundiaren eta zenbait finantza-erakundearen artean sinatutako hitzarmenaren bitartez gauzatuko da.

9. Epe luzerako kreditu-eragiketa berriak formalizatzeko, ondokoak behar dira:

- a) Tokiko Kontu-hartzailearen txostena.
- b) Organo eskudunak epe luzerako kreditu-eragiketa ituntzeko erabakia hartzea.



- c) Organo eskudunak ekonomia eta finantzen arloko saneamendu-plana onestea; Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak plan horri buruzko aldeko txostena egin beharko du aurretiaz. Saneamendu-plan horretan, hiru urteko gehieneko epearen barruan aurrezpen garbi positiboa bermatu beharko da, baldin eta 2018ko ekitaldia aurrezpen garbiari doazkion zenbateko negatiboekin likidatzen bada.
 - d) Organo eskudunak kapital bizia murrizteko plana onestea; Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak plan horri buruzko aldeko txostena egin beharko du aurretiaz. Plana horretan, hiru urteko gehieneko epearen barruan, kapital bizia eragiketa arrunt sendotuen ziozko sarriren % 110era murriztuko dela bermatu beharko da, baldin eta 2018ko ekitaldia portzentaje handiago batekin likidatzen bada.
 - e) Organo eskudunak kapital bizia murrizteko plana onestea; Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak plan horri buruzko aldeko txostena egin beharko du aurretiaz. Plana horretan, hiru urteko gehieneko epearen barruan, kapital bizia eragiketa arrunt sendotuen ziozko sarriren % 60ra murriztuko dela bermatu beharko da, baldin eta 2018ko ekitaldia % 60tik gorako baina % 110etik beherako edo pareko portzentaje batekin likidatzen bada.
 - f) Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren baimena edo, hala denean, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 55.3. artikuluan aipatzen den manuzko txosten ez-lotarazlea edukitzea.
 - g) Toki erakundearen kontu-hartzaileak txostena egin beharko du urtero, ekonomia eta finantzen arloko saneamendu-planak edo kapital bizia murrizteko planak betetzen diren ala ez erabitzeko. Txosten hori toki erakundearen Osoko Bilkurari jakinaraziko zaio, horren berri jakin dezan, eta bai Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari ere.
 - h) Indarreko araudiaren arabera ez bada beharrezkoa loteslea ez den nahitaezko txostena baimentzea ez igortzea, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauko 51. artikuluan aipatzen diren erakundeek 2018. urtean epe luzera zein laburrera formalizatu nahi dituzten eragiketa guztien berri eman beharko diote Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari. Finantza babesaz baliatuta, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak itundu beharreko eragiketaren idazpenak egingo ditu.
10. Toki erakundeek formalizatzen dituzten zorpetze-eragiketak hilabeteko epealdian jakinarazi beharko zaizkio Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari formalizatu ondoren.
11. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak eragiketa hauek jakinarazi behar dizkio Ogasun eta Finantza Sailari, behar diren ondorioetarako: toki erakundeei baimentzen dizkien kreditu-erakundeak eta baimenik behar ez izan arren aurreko idatz-zatien xedatutakoaren arabera jakinarazten diren eragiketa guztiak.

44. artikulua. — Toki erakundeek eman beharreko informazioa

Lurralde Historikoko toki erakundeek, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailari honako agiri hauek jakinarazi behar izango dizkiote:

- a) 2019ko urtarrilaren 31ra arte, 2018ko abenduaren 31n dagoen zor bizia, bai eta 2019ko ekitaldirako aurretik ikusten den finantza zama ere.
- b) 2019ko apirilaren 30era arte, 2018. urteko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioa.
- c) 2019. urteko aurrekontu orokorra, udalbatzak behin eta betiko onetsi eta hurrengo bat hilabeteko epean.
- d) 2019ko urriaren 31 baino lehen, 2018. urteko Kontu Orokorra.



- e) Hiru hilean behin, urtarrilaren 31ra arte, apirilaren 30era arte, uztailaren 31ra arte eta urriaren 31ra arte, hurrenez hurren, 2019ko aurrekontuaren egikaritza, indarrean dagoen araudiari jarraituz.
- f) 2018. urteko zerbitzuen benetako kostua, 2019ko azaroaren 1a baino lehen.

Errekerimendua egin ondoren Bizkaiko Foru Aldundiak udalen eta mankomunitateen zerga itunduetako partaidetzaren % 30 atxiki ahal izango du, edo Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak izapidetzen dituen diru-laguntzen edo transferentzien portzentaje bera, hurrenez hurren, baldin eta aurreko b) atalean agertzen den informazioa igortzen ez badute. Informazio hori jaso ondorik, zenbateko atxikia ordaintzeari ekingo zaio.

VII. TITULUA

ZERGEI BURUZKO ARAUAK

I. KAPITULUA

ZERGEI BURUZKO ARAUAK

ZUZENKO ZERGAK

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

45. artikulua.— *Salbuetsita dauden errentak*

2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreekin aldatu egiten da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 9. artikuluen 12. atala. Horren idazkuntza berria honako hau izango da:

«12. Salbuetsita egongo dira honako prestazio hauek:

- a) Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak (Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzekoak) II. tituluko X. eta XV. kapituluetan eta VI. tituluko I. kapitulan arautzen dituen familia-prestazioak, eta Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboen erregimen publikoetatik jasotzen diren zurtasun pentsioak nahiz hartzeko pasiboak, eta hogeita bi urtetik beherako biloben eta anai-arreben alde edo lan orotarako ezgaituen alde onartutakoak.
- b) Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak (Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzekoak) II. tituluko VI. eta VII. kapituluetan arautzen dituen familia-prestazioak, kasuan kasuko Gizarte Segurantzaren erregimen publikoetatik jasotzen dituztenak eta pertsona funtzionarioek bidezko erregimen publikoetatik jasotzen dituzten prestazio berdinak.
- c) Norberaren Konturako Langile edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian sartuta ez dauden profesionalei araubide berezi horren ordezkoko gisa jarduten diren gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek onartzen dizkieten prestazioak, betiere aurreko a) eta b) letretan ezarri direnen moduko egoeretan gertatzen diren prestazioak badira.

Horrelako kasuetan Gizarte Segurantzak dagokion kontzeptuagatik onartzen duen gehieneko prestazioa izango da zenbateko salbuetsiaren muga. Soberakinak lan-etekin moduan tributatuko du, eta Gizarte Segurantzaren prestazioak eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko mutualitate edo erakundeek aldi berean jaso direnean, soberakina azken horien prestazioetan gertatu dela uler-tuko da.

- d) Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek kooperatibetako bazkideei onartutako prestazioak, betiere aurreko a) eta b) letretan ezarri direnen moduko egoeretan gertatzen diren prestazioak badira.

Gizarte Segurantzak dagokion kontzeptuagatik onartzen duen gehieneko prestazioa izango da zenbateko salbuetsiaren muga. Soberakinak lan-etekin moduan tributatuko du, eta Gizarte Segurantzaren prestazioak eta borondatezko gizar-



te-aurreikuspeneko mutualitate edo erakundeenak aldi berean jaso direnean, soberakina azken horien prestazioetan gertatu dela ulertuko da.

- e) Funtzionario publikoek, minbiziak edo beste gaixotasun larri batek eragindako seme-alaba adingabea zaintzeagatik lanaldiaren murrizketa dela eta, funtzionariook zerbitzuak ematen dituzten organo edo erakundetik jasotzen dituzten ordainsariak; murrizketa hori Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategineko 49. artikulua e) letran aipatzen da (testu bategin hori urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

Salbuetsitako zenbatekoak muga hau izango du: Gizarte Segurantzak minbiziak edo beste gaixotasun larriaren bat duten adingabeak zaintzeko prestazio ekonomikoa dela-eta aitortzen duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa; prestazio hori Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko II. tituluko X. kapituluaren aurreikusten da.

- f) Autonomia-erkidegoetatik edo toki-erakundeetatik jasotzen diren amatasun- eta aitatasun-prestazio publikoak.
- g) Jaiotzagatik, erditze anizkoitzagatik, adopzioagatik, adopzio anizkoitzagatik, kargupeko seme-alabengatik eta zurtasunagatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak.»

46. artikulua. — Baterako zerga-ordainketaren ziozko txikipena

2019ko urtarrilaren 1ko ondorioekin Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 73. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

«73. artikulua. — Baterako zerga-ordainketaren ziozko txikipena

1. Foru arau honetako 98. artikuluan xedatutakoaren arabera baterako zerga ordainketa hautatuz gero, urteko autolikidazioaren zerga oinarritik 4.347 euro ken daitezke.
2. Aurreko idatz zatian aipatutako murrizketa 3.776 eurokoa izango da foru arau honetako 98. artikuluko 2. idatz zatian adierazitako familia unitateen autolikidazioan.»

47. artikulua. — Likidazio oinarri orokorraren eskala

2019ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 75. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

«1. Likidazio oinarri orokorra ondoko eskalan agertzen diren tasekin kargatuko da:

Likidazio oinarri orokorra, gehienez Base liquidable general hasta (€)	Kuota osoa Cuota íntegra (€)	Likidazio oinarriaren gainerakoa, gehienez Resto base liquidable hasta (€)	Tasa aplikagarria Tipo aplicable (%)
0,00	0,00	16.030,00	23,00
16.030,00	3.686,90	16.030,00	28,00
32.060,00	8.175,30	16.030,00	35,00
48.090,00	13.785,80	20.600,00	40,00
68.690,00	22.025,80	26.460,00	45,00
95.150,00	33.932,80	31.700,00	46,00
126.850,00	48.514,80	58.100,00	47,00
184.950,00	75.821,80	Hortik aurrera / En adelante	49,00»

**48. artikulua.— Kuota murriztea**

2019ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 77. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

«77. artikulua.— Kuota murriztea

Zergadunek 1.432 euro gutxitu ahal izango dituzte kuotan, autolikidazio bakoitzean, Foru Arau honetako 74. artikuluan ezarritakoaren arabera.»

49. artikulua.— Ondorengo ziozko kenkaria

2019ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 79. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak aldatu dira eta honela geratu dira:

- «1. Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko kenkari hau aplikatuko da:
 - 603 euro urtean lehenengoagatik.
 - 747 euro urtean bigarrenagatik.
 - 1.261 uro urtean hirugarrenarengatik.
 - 1.490 euro urtean laugarrenarengatik.
 - 1.946 euro urtean bosgarrenagatik eta hurrengo bakoitzarengatik.
2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo bakoitzeko aurreko idatz-zatiaren araberrako kenkaria aplikatzeaz gainera beste 347 euro kenduko dira urtean.

50. artikulua.— Aurrekoen ziozko kenkaria

2019ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 81. artikuluko 1. idatz-zatiaren lehenengo paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

- «1. Egutegiko urte osoan etengabe eta jarraian zergadunarekin bizi den aurreko ahaide bakoitzarengatik 289 euroko kenkaria aplikatu ahal izango da.»

51. artikulua.— Urritasunaren edo menpekotasunaren ziozko kenkaria

2019ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 82. artikuluko 1. atala aldatu da eta honela geratu da:

- «1. Ezinduta edo menpekotasunean dagoen zergadun bakoitzagatik kenkari bat aplikatuko da, eta zenbatekoa menpekotasunaren edo urritasunaren graduaren eta ezinduak behar duen laguntzaren araberrakoa izango da (urritasunaren gradua eta laguntzaren beharra arau bidez ezarriko dira). Hona hemen taula:

Menpekotasunaren edo urritasunaren gradua eta besteren laguntza behar izatea	Kenkaria (€)
Urritasuna %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa	803
Urritasuna %65ekoa edo handiagoa. Menpekotasun ertaina (I. gradua)	1.147
Urritasuna %75ekoa edo handiagoa eta 15-39 puntu besteren laguntza behar izateagatik. Menpekotasun larria (II. gradua)	1.376
Urritasuna %75ekoa edo handiagoa eta 40 puntutik gora besteren laguntza behar izateagatik. Menpekotasun handia (III. gradua)	1.717

Aurreko paragrafoan adierazten diren menpekotasunaren edo urritasunaren gradua eta laguntza behar izateagatik puntuak abenduaren 23ko 1.971/1999 Errege Dekretuaren I. eranskinean eta otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan zehaztutakoarekin bat egongo dira. Horren bitartez onesten da autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako menpekotasuna baloratzeko ezarritako baremoa.



Kenkari bera aplikatuko da ezkontidea edo izatezko bikotekidea pertsona desgaitua edo mendekoa bada eta zenbaki honetan ezartzen diren betekizunak betetzen baditu».

52. artikulua.— Adinaren ziozko kenkaria

2019ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 83. Artikuluko 1., 2. eta 3. atalak aldatu dira eta honela geratu dira:

- «1. 65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko 346 euroko kenkaria aplikatuko da.
Zergadunak 75 urte baino gehiago badauzka, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 632 eurokoa izango da. Atal honetan zehaztutakoa aplikatzean, zergadunaren zerga-oinarria 20.000 eurokoa edo gutxiagokoa izan beharko da.
2. 20.000 - 30.000 euro bitarteko zerga-oinarria duten 65 urtetik gorako zergadunek 346 euroko kenkaria aplikatuko dute urtean, ondoko eragiketaren emaitza kenduta: zerga-oinarriari 20.000 euro kendu eta emaitza 0,0346z biderkatu.
3. 20.000 - 30.000 euro bitarteko zerga-oinarria duten 75 urtetik gorako zergadunek 632 euroko kenkaria aplikatuko dute urtean, ondoko eragiketaren emaitza kenduta: zerga-oinarriari 20.000 euro kendu eta emaitza 0,0632z biderkatu.»

III. KAPITULUA**TASAK ETA, HERRI PREZIOAK****54. artikulua.— Tasak eta, herri prezioak**

2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreekin Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren katastroko balioak 2018ko ekitaldikoak izango dira 100eko 1,5eko gehikuntzarekin.

III. KAPITULUA.**TASAK ETA, HERRI PREZIOAK****54. artikulua.— Tasak eta, herri prezioak**

1. 2019ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Bizkaiko Foru Aldundiaren zenbateko fin-koko tasak eragiketa honen arabera igoko dira: 2018ko zenbatekoari 1,015 koefizientea aplikatuko zaio.

2018an sortutako tasak edo urte horretan eman diren arauak eguneratutako tasak, igoera horretatik kanpo geratzen dira; era berean, bingo kartoen salmenta-tasa eta Bizkaibus zerbitzuaren tarifa bakarraren onuradunen identifikazioko txartela emateagatiko tasa, kanpo geratzen dira.

Ulertzen da zenbateko finkoko tipoak direla oinarriaren portzentajearen arabera zehazten ez direnak edo diru unitateetan baloratzen ez dena.

2. 2019ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Bizkaiko Foru Aldundiaren zenbateko fin-koko prezio publikoak eragiketa honen arabera igoko dira: 2018ko zenbatekoari 1,015 koefizientea aplikatuko zaio.

Honako hauek igoera horretatik salbuetsiko dira: 2018an emandako arauen bidez berriaz eguneratu diren edo sortu diren salneurri publikoak, KPlren bilakaeraren arabera eguneratzen direnak, zerbitzu kartografikoak emateagatiko salneurri publikoak, Bizkaiko Foru Aldundiak editatutako argitalpenen salmenta-zerbitzuagatikoak eta Bizkaiko Foru Liburutegiaren erreprografia-zerbitzuak emateagatikoak.

Ulertzen da zenbateko finkoko tipoak direla oinarriaren portzentajearen arabera zehazten ez direnak edo diru unitateetan baloratzen ez bada.

**XEDAPEN GEHIGARRIAK****Lehen Xedapen Gehigarria. — *Berandutze-interesa***

2019ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen Foru Arauan aipatzen den berandutze-korrituen tasa %3,75 izango da urtero.

Bigarren Xedapen Gehigarria. — *Pertsonal gastuei buruzkoa*

1. Lantzean behingo lanengatiko ordainketak, gauez edo jaiegunetan egiten direnak, eta baita esperientziagatik egiten diren ordainketak ere, jarraian adieraziko diren irizpide hauen bidez eraenduko dira.

Aurrean adierazi diren kontzeptu horiek honela kalkulatu dira: lanordu bakoitzaren arabera lehenengo bietan eta, hirugarrenean, hilabeteka (14 ordainsaritan), emandako eta aintzatetsitako zerbitzuen 3 urteko aldi bakoitzeko.

Esperientziagatiko ordainketatik enplegatu bakoitzak jasoko duen 2. Osagarri Pertsonal Iragankorraren zenbatekoa kenduko da.

Baldin eta gauez edo jaiegunetan egiten diren lanengatiko ogibidesariak badaude, ez da bidezkoa izango horiek jasotzea osagarri berezia zehazteko inguruabar horiek baloratzen dituzten lanpostuetan.

2019ko ekitaldirako, ordainsariok 24. artikuluan ezarritako irizpideen arabera egokitu-ko dira. Ondorioz taula hau 2019rako gehitu egingo da gainerako ordainsariak gehitzen diren portzentaje berean:

	Taldea Grupo	Taldea Grupo	Taldea Grupo	Taldea Grupo	Taldea Grupo
	E/ Elkarte Profesional Agrupación Profesional	D/C2	C/C1	B/A2	A/A1
Jaiak / Festivos	8,17	9,65	10,63	12,90	15,75
Gauetakoak / Nocturnos	4,07	4,81	5,31	6,47	7,87
Esperientzia / Experiencia	17,15	16,15	14,61	9,22	10,76

2. 920108 programako 185 kontzeptua, 07 saila eta 02 atala, Elkarkidetza enpresari ordainketak egiteko erabiliko da, kuotak eta aipatutako enpresarekin hartutako konpromisoak ordaintzeko; horrek aurrekontuan daukan zenbatekoak ordainketa horiek gaitzen ditu.

3. Ordainsariak 2019ko ekitaldian gehikuntza izatea erabakitzen da, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak zein foru-sektore publikoko gainerako erakundeetan horretarako baimena duten organo eskudunek honela zehaztuko dute zenbatekoa den:

2019. urtean ordainsarrietan aurreko urtekoen aldean (aurreikusitako baterakuntza egin ondoren) izango den gehikuntzaren ehunekoa EAeko kontsumo-prezioen indizearen igoerarena izango da; behar izanez gero, ehuneko hori oinarritzko araudiarekin bat etorritik ezartzen den gehieneko ordainsari-ehunekora arte gehituko da (finkoa eta aldagarria, Funtzio Publikorako Estatu Idazkaritzaren 2018ko martxoaren 22ko Ebazpenaren eranskineko lehen idatz-zatian ezartzen denaren arabera; horren bidez argitaratu egin da enplegu publikoa eta laneko inguruabarrak hobetzeko Gobernuaren eta sindikatuen arteko II. akordioa

%1,3ko ordainketa 2019an lanean aritu diren langileei, Akordioko 70.1 artikuluan eta indarreko hitzarmeneko 92.1 artikuluan ezartzen denaren arabera, aurreko urteetako hitzarmenetan eta akordio kolektiboetan soldatez eta ordainsariez ezarritakoa aplikatuz, eta urteko gehikuntza. Horrela konpromisoa osorik beteko da; kopurua ordainketa bakarrean eman ahal izango da edo, bestela, urteko gehikuntzari batuta.

Ondorioz, ordainsarien taulak oinarritzko zenbatekoen arabera egokituko dira.

4. 2018ko ekitaldiko ordainsarien gehikuntza honetara baliozkotuko da:



2018ko ordainsariak %1,5 gehituko dira ekainera arte 2017koen aldean (urte horretako baterakuntza egin ondoren) eta %1,75 uztailetik aurrera, bai oinarritzko ordainsariak, bai osagarriak (aldaeinak), hots, lanpostu-mailako osagarria eta berariazko osagarria.

%1,3ko ordainketa 2018an lanean aritu diren langileei, Akordio 70.1 artikuluan eta indarreko hitzarmeneko 92.1 artikuluan ezartzen denaren arabera, aurreko urteetako hitzarmenetan eta akordio kolektiboetan soldatez eta ordainsariez ezarritakoa aplikatuz. Kopurua ordainketa bakarrean emango da.

Hirugarren Xedapen Gehigarria. — *Bizkaiko Foru Aldundiaren Enpresa-Sektore Publikoari dagozkion Erakundeentzako plantillako plaza sortzea, aldaraztea edo/eta amortizatzea*

Arau honetan onetsitako Bizkaiko Foru Aldundiaren Enpresa-Sektore Publikoari dagozkion Erakundeentzako langile finkoen plantilla 2019. urtean alda daitezke, aurreko 29. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldin eta enpresaren eragiketa edo antolakuntzako estrategia dela-eta Foru Aldundiak plantilla aldatzea onesten badu eta plaza arestion aipatu diren erakunderen batean edo horietako batzuetan amortizatu behar badira eta, horren ondorioz, plantilla handitu behar bada, Bizkaiko Foru Aldundiaren Enpresa-Sektore Publikoari dagozkion beste erakunderen batean edo batzuetan, betiere arau honetan onetsitako Bizkaiko Foru Aldundiaren Enpresa-Sektore Publikoari dagozkion Erakunde guztien guztizko plantilla igoerarik gertatzen ez bada.

Laugarren Xedapen Gehigarria. — *Udalkutxa 2018aren likidazioa*

